

Diskoak

IKER BARANDIARAN

FRONT MALABAR



Front Malabar.
Front Malabar.
Autoekoizpena.
Iraupena: 18'13".
5 euro.

Amorrua dotoreziaz

TALDE GAZTE HAU osatzen duten hiru musikariak Gipuzkoa eta Bizkaiko herri desberdinetakoak dira eta Internet bidez izan zuten elkarren berri. Bachelors, Malaña, Kumulo de Limbo eta beste hainbat taldetan aritutakoak dira. Iraganeko eta gaur egungo doinuak batuta, musika indartsua eta iluna egiteko nahiaz elkartu ziren, barrenak husteko asmoz. Ingelese abestutako sei pieza hauetan Detroiteko high-energia oso presente dago, baita

punk-rocka eta psikodelia, fuzz eta guzti. Punk-rockaren amorrua dute, baina bestelako dotorezia eta ukituarekin; bada Los Clavos gogoratzen duen kantarik, baina antzeman daitezkeen eraginak zabalagoak dira. Hala ere, kantak zuzenak dira, tontokeriarik gabekoak, helburu jakina dutenak: amorru sofistikatu eta iluntasun kutsua.

www.myspace.com/frontmalabar

Joxema Cabezas eta Borja Sabas - Front Malabar

«Hirukote izanda, indarra transmititzeko motibazioa asko landu behar dira»

Zer esanahi dauka Front Malabar izenak ?

Joxema Cabezas: George Orwellen 1984 liburutik hartu nuen. Liburu horretan gazteak Malabar frontera bidaltzen zituzten, biztanleria telebista bidez kontrolatzeko. Bizi ditugun garaietatik hurbil dago. Lokalera eraman eta aukeratu genuen.

Power hirukotea da zuen ustez formatu egokiena?

J. Cabezas: Formatu zuzenena da, baina seguruenik baita gehien landu behar dena ere. Ez da erraza hiru bakarrik izanda behar beste indar transmititzea, baina trikimailua da intentsitatea eta jotzeko motibazioa ondo lantzea. Nahi genuen soinua lortu dugu eta ez dugu beste inor behar, oso gustura gaude horrela.

Iraganeko kutsua duen eta aldi berean indartsua den emaitzaren bila aritu zarete?



Borja Sabas: Ez dugu alde zuretik ezer erabaki. Hiru instrumentuak indartsuak izatea gustuko dut, eta aurretik melodia batzuk ateratu nituen. Hiruron arteko batuketa izan da lortu duguna.

J. Cabezas: Hirurok musika indartsua gustuko dugu. Aitorrek Detroiteko musika maite du eta guri eza-gutarazi digu. Gerora, The Stooges, The Who, The Ettes, The White Stripes eta Wolfmother moduko taldeekin bat egiten dugula konturatu ginen.

Psikodelia dagoeneko ia ahaztutako estiloa da; zuen kantetan, berriz, hor dago ahotsen trataeran.

B. Sabas: Bai. Baliteke psikodelia pixka bat egoitea. Nire ahotsa ez zait asko gustatzen eta efektu bat sartu nion; emaitza ona dela uste dugu. Nik psikodelia baino gehiago, *ostia txarra*, sentimendua eta itsaskorrak diren kantak direla uste dut.

Diskoaren azalak erakusten du gaur egun miseriak ere ikuskizun bihurtu ditugula.

J. Cabezas: Bai, gainera, uneoro esaten digute beharra ez izan arren kontsumitu behar dugula; berdin dio herrialde txiroei egiten diegun mina. Zorionez, gero eta jende gehiago iratzartzen ari da eta gauzak aldatzen saiatzen da, autokudeaketa eta elkartasuna moduko baloreak indartuz. ■

